

11:00 Herri kirolak.
12:00 Zumea plazan Gure Esku Dago ekimena.
14:30 Zumea plazan Koadrilen bazkaria.

17:30 Koadrilen kalejira.
20:00 Karaokea txosnatan.
22:30 Dj Nemux txosnatan.

KOADRILEN EGUNA ANDOAINEN

Urnietako eskubaloiei jokalariek pozarren itzuli dira Portugaldik

Urnietako KEk Portugalgo Sao Joao Da Madeira herrian antolatzen duten Andebolmania eskubaloiei txapelketan parte hartu du, Aste Santuan.

Porto hiritik gertu dagoen herrian, ADS taldeak antolatzen duen txapelketan 72 taldek eta 1.300 jokalarik parte hartu zuten. Urnietarrak bigarren gerturatu dira Portugal aldera. Apirilaren 1etik 4ra, Urnietatik sei talde lehiatu dira txapelketa horretan infantil, kadete eta jubenil mailatan. Urnietarrak pozarren iritsi dira txapelketa hartatik, zeinean, oro har, maila ona eskaintzen aritu diren. Eskubaloiko kideentzat balorazioa oso positiboa izan da: “Andebolmaniako bigarren parte hartzea gozamenaren izan da. Helburuak eskubaloiaz ikastea eta elkarbizitza sakontzea ziren, eta ondo baino hobeto bete dira”.

Infantil mailako kontsola-menduko finalean Madeiraren aurka nagusitu ziren. Mutilen artean Urnietakoak eta Uhartekoak elkarrekin lehiatu zi-



Goian, infantil mailako neskek. Kontsola-menduko finala jokatu zuten.

ren. Zortzigarren amaitu zuten hogeitaz talderen artean.

Kadete neskek, lehen urtekoak izanik, sailkapenaren erdialdean amaitu zuten. Emaitza hori oso ona da, lehen urtekoak direlako. Mutilei, aldiz, sailkapenean goialdean amaitzeko zorte apur bat falta izan zitzaion.

Jubenil mailako neskentzat zaila izan zen txapelketa, maila oso ona zelako. Garaipen bakarra lortu zuten, eta esperientzia asko metatu. Mutilek ere txapelketako azken partidatik lortu zuten garaipena, Balonmano Aragon taldeari irabazita.



Pablo Fierro “Best Strick Show” jardueran txapeldun izan zen.

AIPAMEN BEREZIA
PABLO FIERR JOKALARIARI

Andebolmania txapelketan bada jaurtiketa onena saritzen den lehiaketa, “Best Trick

Show” izenekoa. Bada, jubenil mailan Urnietako KEko Pablo Fierro irabazle izan zen. Ostiral gauean pista zentrolean egin zuten saioa, eta urnietarrak jaurtiketa izugarri batekin garaipena lortu zuten. Bere taldekideak atzean zituela puntuaketa handiena lortu zuten. Poz handia eragin zuten sari horrek.

IGANDEAN SENIOR MAILAKO PARTIDA ERABAKIORRA

Urnietako taldeek adiskidantza-zako partidak alde batera utzita, lehiari heldu behar diote hurrengo asteetan. Asteburu hau hil ala bizikoa izango da senior mailako mutilentzat. Lurrealdeko lehenengo mailako azken jardunaldian, Urnietak mailari eusteko Egian duen partida irabazi eta aurkariaren zain egon beharko du. Partida goizeko 11:30ean hasiko da eta klubak jokalariei hauspoa emateko irteera antolatu du. Klubak adierazi duenez, “zaletuek norgehiagoka garrantzitsu horretara animatzera joateko autobusa eskura izango dute”. Mailari eusteko lehiari Andoingo Leizaran taldea ere hortxe izango da.

[KIROLAK, 7. ORRIALDEA]

Berdintasun plana zehazteko hitzordua

Andoingo Udalak 2015ean zehar garatu nahi duen plana herrikideekin batera osatu nahi du. Bilera batera deitu dituzte andoaindarrak, datorren asterako. Datorren ostegunean izango da, apirilak 16, Ambrosia Olabiden.

[ANDOAIN, 2. ORRIALDEA]

Urnietako mendi lasterketa

Irabazleen adierazpenak, eskualdeko partaideen denborak eta argazkiak, Andoni Urbistondo korrikalariaren iritzia, mendi lasterketa txikia...

[GEHIGARRI BEREZIA]

Urki dantza taldearen erakustaldia

Aste Santuaren atarian saio ikusgarria eskaini zuten Basteron.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]



ERRENTA AUTOLIKIDAZIOA EUSKARAZ BATU ETA GEHITU ETEKINA

%20 BAIETZ BURUNTZALDEAN!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.org>
Sartu Buruntzaldeko Facebook-en eta parte hartu gure lehiaketan!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria / Urnietako / Usurbil
Udal Euskara Batzordeak



Andoaindarrak 400 Lau hitzordu apirilean



Belkoain aldeko ondare arkeologikoa erakusteko irteera antolatu du Burdinak.

Andoainen, 400. urteurrena dela eta, ospakizunekin aurrera darraite. Kontzertuak, hitzaldiak, erakusketak eta beste hamaika ekitaldi egin dira orain arte, eta datozen bi asteburuetan ere ez da etxean geratzeko aitzakiarik izango.

APIRILAK 18, LARUNBATA BERTSO AFARIA

Datorren larunbatean, Andoaingo historiaren errepaso egingo dute bertso afarian. Zizurkildik Unai Mendizabal eta Joseba Otaegi arituko dira, Andoaindik Jon Eskudero eta Ion Beloki, eta Amasatik Oihana Iguaran eta Beñat Iguaran. Gaiak jartzen, berriz, Amaia Agirre ibiliko da.

Basteroko ekitaldi aretoan izango da afaria, iluntzeko 20:30ean. Bertara joan nahi duenak txartelak 20 euroren truke eskura ditzake, Amasa-Villabonako Amasa kafetegian, Zizurkilgo Iriarte tabernan eta Andoainen, Basteron, Ernaitzan eta Atarian.

APIRILAK 19, IGANDEA MENDI IRTEERA

Belkoaingo karobi, dolmen, telegrafo eta karlisten garai-ko gotorlekuak bisitatuko dituzte igandean. Gainera, Burdina taldekoen azalpenak entzuteko aukera izango da. Igande goizean 09:30ean abiatuko dira Goikoplazatik eta 2-3 ordu inguruko iraupena izango du ibilaldiak.

Irakurketa kluba 4 eta 5 urte bitarteko haurrentzat

Udal Liburutegiak irakurketa klubak antolatu ditu 2010 eta 2011 urteetan jaiotako neska-mutilentzat eta euren gurasoentzat. Saiotara haur bakoitzak pertsona heldu batekin agertu behar du.

Irakurketa kluba Galtzagorriko kideek eskainiko dute.

APIRILAK 25, LARUNBATA POSTAL TAILERRA

Andoaingo urteurrenaren berri emateko, munduko edozein txokotan dagoen lagun edo senitarteko bati postala bidaltzeko aitzakia da tailer hau. Gartxot Arregik zuzenduta, postalak egingo dituzte larunbatean, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era.

Postala egiteko, Andoaingo argazkiak eraman ditzake norberak; zaharrak, berriak, paperean, diapositiban, digitaletan... Izen-ematea irekita dago jada eta apirilaren 23an amaituko da. 943 30 35 40 telefono zenbakian edota kultura1@andoain.eus helbidean egin daiteke izen-ematea.

APIRILAK 26, IGANDEA 400 IRRI BANDA

Andoaingo musika eskolako Udal banda eta haur eta gazteen abesbatzak lagunduta, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emakizun berezia izango da igande arratsaldean. Kantu ezberdinak interpretatuko dituzte guztiek batera, pailazoen emakizuna tartekatuz. Bi saio egingo dituzte, bata 17:00etan eta bestea 19:00etan, Basteroko areto nagusian. Lehenengo saiorako sarrerak agortuta daude, baina bigarrenarako gutxi batzuk geratzen dira oraindik. Horiek, 7 eurotan eskura daitzke Basteron.

IZEN-EMATEA ZABALIK

Apirilaren 15a bitarteko epea dago izena emateko, eta hogei lagunentzako tokia dago. Eskabide orria eskatu eta izena eman daiteke internet bidez liburutegia@andoain.org e-postara idatziz. Lehen saioa apirilaren 21ean izango da arratsaldeko 17:30ean.

Apirilaren 16an arratsaldeko 18:30ean, Ambrosia Olabiden

Berdintasun plana definitzeko deialdia

Udalak herritarrekin bildu nahi du, 2014. urtean parekidetasuna lortzeko egindako ekintzen balorazioa egin eta 2015ean gauzatu nahi diren proposamenak jasotzeko. Apirilaren 16an, 18:30ean Gizarte Zerbitzuetako bilera gelan izango da bilera.

Berdintasun planaren baitan urtean zehar ekintza batzuk martxan jartzen dira parekidetasuna lortzeko helburuarekin. Hiru mahai biltzen ditu: politikoa, teknikoa eta herritarrena. Herritarren mahaiari, berdintasun kontseilua deritzo eta kontseilu hori helburu bikoitzarekin batu nahi dute.

Batetik, 2014ko ekintza guztien memoria egin da, ekintza guztiak deskribatuz, eta bileran horien berri eman nahi dute. Bestetik, 2015eko ekintzak definitzeko, planerako proposamenak jaso nahi dituzte. “Ikusi nahi dugu zein interes dituzten, zer behar duten...”, azaldu du Miren Agirreurreta zinegotziak.

Andoaindar guztiei luzatu diete deialdia bilerara joan daitezen. “Herritarren talde honetan edonork har dezake parte, berdintasunaren alde dagoen edonork”, gaineratu du. Kontseiluari indarra eman nahi diote, herritarren iritzia “berebiziko garrantzia” duelako eta, beraz, ahalik eta jende gehien hurbiltzea nahi dute.

JABETZA ESKOLAKO TAILERRAK

Deialdi honetan, edozein proposamen izango da ongi etorria, baina jabetza eskolaren edukia landu nahi dute bereziki. “Ahalduntze eskolarako ekintzak definitu nahi ditugu



Miren Agirreurreta zinegotzia eta Miren Lizeaga Udal teknikaria.

“Berdintasun planak ez du zentzurik emakumeek behar hori sentitzen ez badute”

Miren Agirreurreta

“Festetan, herritarrek sentsibilizazio lana egin dute, pegatina eta kartelen bidez”

Miren Lizeaga

bilera horretan jasotako ekarpenekin”. Horregatik, bereziki emakumeek dituzten proposamenak entzun nahi dituzte. “Garrantzitsua da emakumei entzutea, berdintasun plan batek ez duelako zentzurik emakumeek behar hori sentitzen ez badute”, argudiatu du zinegotziak. Dena den, gizonezkoak hurbiltzea ere interesatzen zaie, eskolatik kanpoko ekintzetarako proposamenak ekarri ditzaketelako.

HERRITARREN PROPOSAMENAK, ARRAKASTATSUENAK

2014ko esperientzia kontuan hartuta, herritarrek eskatutako ekintzak oso arakastatsuak direla ikusi dute. Horren adibide dira San Juanetan egindako batukada feminista, martxoaren 8aren harira antolatutako kalejira... “Herritarren beha-

rrei erantzuten diegunean arrakasta izugarria dugu; horregatik da horren garrantzitsua kontseilua”.

2014AN EKINTZA UGARI

Hiru mahaitan ekintza mordoa egin dute, parekidetasuna arlo guztietan landu behar dela sinisten dutelako. Hori hala, hirigintzatik “Andoaingo kaleak denontzat berdin” proiektua egin dute eta Gizarte Zerbitzuetatik jabetza eskola martxan jarri zen. Bertako egitasmo aipagarriena batukada feminista da. “Festetan, gainera, herritarrek sentsibilizazio lana egin dute, pegatina eta kartelen bidez”, dio Miren Lizeaga teknikariak. Iaz batukada feministak izan zuen lan hori egiteko ardura, baina urtez urte, festaz festa, jai batzordeak hartuko du lan hori.

Gazteei begira, eskola guztietan Harremonak programa landu dute. Kirolaren arloan, berriz, Eskola Kirolaren parte diren entrenatzaile eta gazteak formatzen dituzte. Bestalde, aurtun Leyçaur liburuaren bidez eta martxoaren 8ko kalejiraren bidez, emakumeen isilpeko lan mundua plazaratu da. Udalaren baitan ere pausoak eman dituzte, izan ere, esaterako, hizkuntza sexistaren ikastaroa egin dute.

Ekintza hauen guztien balorazioa egingo da apirilko bileran, kontu emateaz gain, proposamen berriak jasotzeko.



Iaz kalez kale musika egiten aritu zen batukada taldea.

ANDOAINEN 36AN ALDASORO, ARANZABAL, AMUNDARAIN, ARZALLUS ETA FERNANDEZ ERAIL ZITUZTEN

Frankismoak eraildako biktimen agerraldia udaletxean

Frankismoak Andoainen eraildako bost biktimen familiarrek agerraldia egin zuten udaletxean martxoaren 21ean. “Oroituz, Andoainen” elkartearekin batera egindako txosten pertsonalak Ana Carre-

re alkateari eta Jose Maraña idazkariari aurkeztu zizkieten. Horiek fedea eman zuten euren sinadurarekin, nolabaiteko ofizialtasuna emanez txostenak uztearen ekimenari.

Biktima guztiei egia, justizia eta erreparazio eskubidea zor zaie, eta printzipio hori ez du inork ukatzen, maila teorikoan behintzat. Praktikan, ordea, botere publikoek ez dute borondate askorik erakusten frankismoak eragindako biktimen kasuan. Urte mordoa pasa da, baina oraindik, oroimenen aldeko elkarreen eta familiarren esku jarraitzen du, hein handi batean, printzipio horien alde egitea. Adierazpen horiek egin zituzten “Oroituz, Andoainen” elkarte kideek, larunbateko ekimena antolatu zutenek.

Cruz Aldasoro, Antonio Aranzabal, Pio Arzallus eta Nemesio Fernandez andoaindarren familiarrek txostenak aurkeztu zituzten, Migel Amundarain oriatarraren txostenarekin batera, eta Andoingo Udaleko alkateak eta idazkariak fedea eman zuten, nolabaiteko ofizialtasuna emanez agiri uztearen ekimenari. 1936ko bost biktimen kasuak azaltzen dituzten txostenak mahairatu ziren ekitaldian. Guztira, ia 450 agiri (testigantza pertsonalen ahozko eta irudizko grabaketak, gutunak, argazkiak, esku idatziak...), digitalizatuta denak ere.

Ekitaldian zehar, Ana Carre- rek eraildako bost lagunen in-



Karmele Recalde, Guadalupe Aranzabal, Karmen eta Xanti Milton, Jon Gurutz eta Alazne Fernandez familiarrak alkatearekin.

guru-ko galderak egin zizkieten haien familiarrei, eta benetan kontakizun zirragarriak entzun ahal izan ziren udaletxe-ko batzar aretoan.

SAREKADA BEREAN ATXILOTUAK BOSTAK

Andoain indarrez okupatuta zeukaten tropa frankistek atxilotu zituzten aipatu bost lagunak, abuztuaren 29an. Biharamunean, egunsentian, Tolosa-ko kanposantuan erail eta hobi komun batean lurperatu zituzten. Esan daiteke Andoingo

gizartearen inpakturik handiena sortu zuena izan zela gertakizun odoltsu hori, uztailearen 18ko kolpe militarrek eragin zituen giza eskubideen urraketak guztien artetik. Mola jeneralak aurreneko egunetik bertatik agindua baitzuen indarrez hartzen zen herri bakoitzean eskarmentuzko ekintza bortitzak burutu behar zirela, izua zabaltzeko bertakoen artean eta argi uzteko nork eta nola aginduko zuen etorkizunean.

Egunetan atzerago joanda, esan behar da frankistak An-

doainen sartu bezperan, abuztuaren 14an, egundoko ebakuzioa gertatu zela. Makina bat pertsonak itsasaldera egin zuen ihes, ia basamortu bihurtuz 4.000 biztanleko herria. Bakar batzuk baino ez ziren izan Errepublikaren legimititate demokratikoarekin bat egin da, Andoainen geratzea erabaki zuten herritarrek. Inori kalterik egin ez ziotela sinetsita.

Bada, frankistek, herrian etsaitzat zeuzkaten bost lagun hautatu zituzten Molaren aipatu mezu hori zabaltzeko. Horie-

tatik lau, Etxeberrieta auzokoak ziren, ume txikiez osatutako familia-aitak. Aski ezagunak auzoan eta herrian, estimatuak. Abertzale, euskaltzale edo langileen eskubideen aldeko, pentsamenduz eta jardunez. Hori- xe izan zen euren bekatua.

Larunbateko ekitaldian parte hartu zuten familiarrek ziurtatu zuten, zenbait auzotarraren salaketak jasan zituzten euren aita eta aitonek 1936ko abuztuaren.

TXOSTEN GEHIAGO, ETORKIZUNEAN

“Oroituz, Andoainen” elkarteak antzeko ekimenekin jarraitzeko asmoa agertu zuen joan zen larunbatean, Andoingo biktimen inguruko egiak konstantzia dokumentatua izan dezan udaletxean, eta txosten horiek guztiak etorkizunean baliagarri gerta daitezen egiaren, justiziaren eta erreparazioaren mesedetan. Iaz ekin zitzaion ekimenari. Plazaolako Andoingo geltoki buru zen Sekundino Antonen kasua aurkeztu zen Udalean, Teresa Antton alabaren eskutik. Beste bost lagunena heldu da oraingoan. Lehentasuna, noski, eraildako eta desagertarazitako pertsonen edukiko dute. Ondoren, bestelako giza eskubideen urraketa jasandako andoaindarren kasuen aldeko ekimenak etorriko dira.

BOST LAGUNEN ETA EUREN FAMILIEN DRAMA, HITZ LABURREZ



KRUZ ALDASORO ELIZASO

Hiru seme txikiren aita. Tolosa-Donostia tranbietako langilea. Ezkertiarra eta abertzalea. Alargunak, Benigna Gonzalezek, semeekin Donostiara alde egin behar izan zuen, Andoainen bizitzea ezinezkoa egin zitzaiolako, auzotar batzuen jarrera gaiztoa zela medio.



ANTONIO ARANZABAL URRESTARAZU

Lau seme-alaba txikiren aita; emaztea, Mari Karmen Yarza. Leitzarango hidroelektrikako langilea. Ezkerrekoa eta euskaltzalea. Pablo Iglesias Casas Baratas langileen Kooperatibako buruzagia. Bere bi seme-alaba (Joxe eta Luxia) gaixotasunez hil ziren 1943an.



PIO ARZALLUS ALBISU

Bost seme-alaben aita. Algodonerako langilea. Euskaltzalea. Bere seme bat (Bernardo) Bizkaiko frontean hil zuten 1936ko abenduan, Itxarkundia bataloiko gudarri gisa. Bere emaztea, Pantxika Unanue, 1937an hil zen; bere alaba Beatriz, berriz, 1939an.



NEMESIO FERNANDEZ ARGIARRO

Lau seme-alaba txikiren aita. Andoainen EAJko zinegotzia izana. Herriko aguazila zen. Rafaela Agirre alarguna eta seme-alabak Aiete auzora joan behar izan zuten bizitzera familiarren etxera. Alaba, Miren Edurne, istripuz hil zen, Francoren bizkartzainen autoak eraginda 1939an.



MIGEL AMUNDARAIN ZUMEAGA

Oria auzoko mutila. UGTko militantea eta 1934-1936an preso egondakoa langileen eskubideen alde egiteagatik. Ezkongabea zen, Andoainen zuen andregai eta haren etxean ezkutatu zen. Andregaiaren amak salatu egin zuen.

Hondakinen kudeaketa hizpide Urigainen



Eguzki eta Zero Zabor taldeek antolatu zuten ekitaldia.

Hondakinen bilketari eta kudeaketari begira, lau puntutan oinarritutako proposamena aurkeztu zuten Eguzki eta Zero Zabor taldeek joan den martxoaren 27an, Urigainen. Lehenak, hondakinen bilketa unibertuala du ardatz (edozein dela ere sistema, herritar guztiek egin beharrekoa). Bigarrenak, hondakin organikoa eta bereziki errefusa era berezian eta neurtuan edo mugatuan biltzearen alde egiten du. Hirugarrenak, tarifa lauari ezetz esaten dio (kutsatzen duenak ez luke gauzak ondo egiten duenak bezainbat ordaindu beharko). Lau garren proposamena, azkenik, etxe ondoan nork bere kudeatzen duen hondakin zati horren aldeko auzo konpostan oinarritzen da.

Proposamenaren bultzatzaileak nahiko ezkor agertu ziren hondakinen inguruan Andoainen eman diren pau-

soen gainean. "Gipuzkoan ingurumenaren ikuspegitik aldaketa handiak egin dira; Andoainen, aldiz, gai horrek ez du zeresan handirik eman, alderdi politikoen eztabaidarako ez bada izan. Horren adierazgarri da, konposta guneko kolektibo eta banakakoak gora-behera, 2001ean genuen egoera eta orain duguna bertsua dela".

ORDEZKARITZA POLITIKOA

Ekitaldikiko antolatzaileek Andoaingo alderdi politikoei gonbidapena luzatu zieten, Bilduko Ana Carrere eta Irabaziko Jorge Mourinho baino ez ziren bertaratu. Hondakinen inguruan euren alderdiek dauzkaten iritzi eta planteamenduak azaldu zizkien entzuleei, eta funtsean, bat egin zuten Eguzki eta Zero Zabor taldeek mahairatu zituzten lau proposamenekin.

Etxegabetzeen aurka



Miren Peña, bere buruaz beste egin zuen Antsoaingo herritarraren kasua salatze-ko bilkura egin zuten Laboral Kutxaren aurrean, joan den martxoaren 28an. Deialdia egin zuen Stop Kalera-tzeak elkarteak adierazi zuenez, Peñak bi urte zeraman langabezian, eta Antsoaingo Udalaren laguntzak ahitu zitzaizkionean ezin izan zien etxebizitzako zorrei aurre

egin. Laboral Kutxari praktika egokien kodea ezartze-ko eskatu zion; bankuaren ezezko erantzuna jaso eta biharamunean egin zuen bere buruaz beste emakumeak. Bilkura isilarekin, hildakoaren senitartekoei elkartasuna adierazteaz gain, pertsonak heriotzara eramaten dituzten lege bihozgabeak salatu nahi izan zituzten Andoainen.

Tamaina eta pisu handiko harrizko apaingarria erori zen

Ezustekoa Goikoplazan



San Martin parrokiako harrizko zati bat lurrera erori zen martxoaren 25ean. Aurreko partean, armarrria eta erlojuaren artean zegoen elementu apaingarria da lurrera etorri

zena, pisu handikoa. Udaletxe-ko langileek badaezpadako neurriak hartuz, berehala hesitu zuten ingurua. Eguerdian gertatu zen, txingorrek gogor jo zuenean. Une horretan ekai-

tzetik babestuta oinezko bat baino gehiago zegoen, begien aurrean ikusi zutenarekin zur eta lur geratuz. Zorionez, ezusteak ez zuen kalterik sortu oinezkoen artean.

Mari Jose Izagirre alkategai, eta Imanol Goenaga bigarren

EAJ-PNVko zerrendakideak



Andoaingo jeltzaleen hautagaitza, Markel Olano Batzar Nagusietarako hautagaia eta Joseba Egibar jeltzaleen buruzagi nagusiarekin.

Andoaingo Euzko Alderdi Jeltzaleak **Mari Jose Izagirre** buru izango duen hautagaitza aurkeztu du. Euren esanetan: "zerrendak esperientzia eta gaitasuna uztartzen ditu, adin eta lanbide ezberdinak gizon-emakumeek osatzen baitute. Bestelako Andoain baten alde egiteko grinak batzen ditu denak. Punta-puntako lantaldea osatu dugu, eta andoaindarren

konfiantza lortuko dugun itxaropena dugu".

Zerrendakideak:
Mari Jose Izagirre.
Imanol Goenaga.
Iñaki Egibar.
Gregorio Olasagasti.
Ainhoa Elola.
Joseba Poza.
Andoni Elozegi.
Xole Irigoras.

Gorka Artola.
Idoia Mikelez.
Jose Antonio Rivas.
María Soriano.
Esther Arizmendi.
Aritz Amondarain.
Koldo Huizi.
Nerea Arregi.
Edurne Britt.
Andoni Baltasar.
Iñaki Irulegi.
Antonio Guedejo.

ateri helmugan
lokatza ibilbidean

Urnietako IV. mendi lasterketa

Urnietarra garaile ibilbide motzean

Eguneko ezusteko atsegin horietakoa izan zen, urnietar asko poztu zituen: antolatzaileak, ikusleak eta irabazlea bera. **Ainhoa Jauregi** pozarren zegoen helmuga zeharkatuta, garaipenaren keina egin eta gutxira. Eskuak gora egin zuen, gogotik gainera. Helmuga zeharkatuta garaipena lortzea sorpresatzat hartu behar ote zen galdetuta, zera adierazi zuen: “Niretzat sorpresa bat izan da. Nire ilusioa ibilbide luzea egitea zen baina ez dut batere prestatu. Parte hartzeko aukera bezala ibilbide motza egitea erabaki nuen, prestakuntza handia egin gabe egiteko gai nintzelako. Egia esan ez nuen irabaztea espero. Baten batek aipatu zidan baina keba! erantzuten nien. Onddin gora lehenengo hasi naiz, bigarrena gertu zegoen eta hortik aurrera lehen postuari eusteko borrokan sartu naiz helmugaraino. Ibilbidea lokaztuta zegoen baina nik gogoko dut, batez ere lehian nabilenean. Niretzat abantaila izan da, ez naiz erori, ez dut ezer arrarorik izan, eta beraz pozik nago”. Iaz, Jokin Lizeaga bere bikoteak garaipena Ainhoari eskaini ziola gogoraraztean, erantzuna azkar eman zuen: “Aurten nik eskainiko diot garaipena berari, horrela nuen pentsatuta gainera”.

Meritu handia izan zuen **Elena Santervas** herrikideak ere. San Silvestrean ere bigarren helmugaratu zen. Mendi lasterketa, ordea, zailtasun handiko proba zen: “Sufritu dut, lehen aldia zelako, eta soilik amaieran gozatu ahal izan dut”.

Hirugarren sailkatua, Maria Sanchez bergararra, irrifarrea ahoan iritsi zen helmugara: “oso polita da ibilbidea. Lehen aldia parte hartzen dudala, eta lasterketarekin gozatu dut. Lokatzez beteta helmugaratu naiz.. Lokatzagatik az-



Ainhoa Jauregi helmuga zeharkatzen, herrikideen txalo artean eta Jokin Lizeaga eta bien semearen begiradapean. 09:35ean irten zenez, 1:31ko denbora egin zuen.



Elena Santervas Ekaitz Ledesmarekin batera.

ken kilometroetan sufritzea tokatu zait. Espero dut datorren urtean ibilbide luzea egitea, itxaron zerrendan geratu nintzen eta”.

URNIETAKO IV. MENDI LASTERKETA

IBILBIDE MOTZA. 11.5 KM. EMAKUMEZKOAK

1	1:31:09	Ainhoa	Jauregi	Urnietarra
2	1:39:02	Elena	Santervas	Urnietarra
3	1:39:51	Maria	Sanchez	Bergara
4	1:39:56	Nagore	Martarena	Irun
5	1:40:33	Sara	Diaz	Urnietarra
6	1:40:35	Begoña	Villas	Urnietarra
7	1:40:53	Maialen	Aranegi	Arrasate
8	1:40:54	Maider	Behobide	Berriz
9	1:40:54	Olatz	Hernandez	Andoain
10	1:41:49	Nahikari	Hospital	Donostia
11	1:46:26	Arantxa	Ruiz	Andoain
12	1:46:35	M.Carmen	Martin	Urnietarra
16	1:56:04	Ainara	De Miguel	Urnietarra

IBILBIDE MOTZA. 11.5 KM. GIZONEZKOAK

1	1:05:20	Lorenzo	Galeano	Elgoibar
2	1:06:35	Aitor	Insausti	Zaldibia
3	1:09:01	Fran	Araña	Arbizu
4	1:12:01	Mikel	Leal	Irun
5	1:12:06	Iñigo	Gurrutxaga	Donostia
10	1:13:19	Asier	Garitaonandia	Andoain
11	1:13:30	Mikel	Eguren	Andoain
14	1:14:38	Ander	Zubizarreta	Urnietarra
15	1:15:32	Iban	Estebez	Urnietarra

IBILBIDE MOTZA. 11.5 KM. KADETEAK

1	1:06:35	Aitor	Insausti	Zaldibia
2	1:12:11	Aitor	Urizar	Oñati
3	1:12:13	Mattin	Jauregi	Ikaztegieta

Lehia estua gizonetzkoen artean

Gizonetzkoen partaidetza ibilbide luzea egin nahi eta ezin izan zuten korrikalariez osatu zen. Lehen postuetan helmugaratu zirenei entzunda, behintzat, euren benetako asmoa lasterketa lizean parte hartzea zen. **Lorenzo Galeano** elgoibartarra nagusitu zen helmugan: “Oso azkar irten gara, horrelako distantzian oso ohikoa da. Lasterketa luzeak harrapatu ditugu eta horiek aurretatzea kosta egin zaigu. Lasterketa perfektua izan da: antolaketa, seinalizazioa... Ez naiz ibilbide luzean atera dortsalik gabe geratu nintzelako. Ea datorren urtean”. Irabazleak lehia estua izan zuen kadete mailako txapeldun bilakatu zen **Aitor Insausti** zaldibiarrarekin: “Oso polita iruditu zait lasterketa,



Lorenzo Galeano (1).



Aitor Insausti (2)



Fran Araña (3).

gogortasuna azken kilometroetan nabaritu dut”. Mendi lasterketetan bigarren parte hartzea zuen Urnietakoa, eta ber-

tan Euskal herriko txapeldun bilakatu zen kadeteen mailan. Haren atzetik, ia sei minutura, elkarrekin helmugaratu

ziren kadete mailako podiumeko beste bi kideak: Aitor Urizar oñatiarra eta Martin jauregi ikaztegiatarra. Etorkizuna euren dago.

Fran Araña arbizuarrak, arnasa hartu ezinik ere, bere poza azaldu nahi zuen: “oso gustura ibili naiz, kriston giroa egon da ibilbide guztian eta gozatu dut. Lokatza bazegoen baina gozatu dut, erabat. Iaz hasi nintzen mendiko lasterketetan, gustura nabil. Datorren urtean ibilbide luze lasterketa egitea nahiko nuke”.

Ibilbide motzeko lasterkarien adierazpenak entzunda, antolatzaileek datorren urterako ibilbide luze lasterketan parte hartzea handitzea aztertuko beharko dute. Ez dago batere erraza.

Egea eta Maiora ibilbide luzean



Gerora podiumera igo ziren lehen hiru sailkatuak, elkar hartuta. Urnietakoan ohikoa da irabazlea helmugan bertan ondorengoan zain egotea.

Aritz Egea

Laugarren edizioan irabazle

“Uste baino gehiago kosta zait. Mendian gora aurkariak atzean uztea kosta zait. Oso pozik nago, hala ere, garaipenarekin”.

Hassan Ait Chaou

Laugarren edizioan bigarren

“Oso pozik nago egindako lasterketarekin eta lortutako bigarren postuarekin”.

Ismail Razga

Laugarren edizioan hirugarren

“Oso gogorra izan da, igorakerak eta jaitsierak etengabe. Eta, gainera, maila handiko lasterkariak zeuden hemen. 21 urterekin, 23 urte azpikotetan irabazidut, eta oso pozik nago.”



Maite Maiorak laskoz garaipena errepikatu zuen. Aurkariak alde handia aterata, gainera.

Helmugan lasterketa guztietan izan ohi dira xelebrekeriak. Ibilbide motzeko lehen hiru sailkatuen ondoren, lau garren korrikalari bat iritsi zen. Ikusleak hari begira txaloka zirela, dortsalik ez zera man gainean. Helmuga zeharkatu eta geratu gabe korrika jarraitu zuen Urnietako aldera. Bere kasa korrika egitea erabaki zuen, antolatzaileek prestaturiko ibilbideaz baliatuz. Zur eta lur utzi zituen helmugan ziren ikusleak eta antolatzaileak.

Beste lasterkari batek helmuga zeharkatu eta, geratu gabe, alboetara begira korrika jarraitu zuen ibilbideak nondik jarraitzen ote zuen galdetzen zuen bi-

tartean. Iker Galfarsoro legazpiarra zen. Ibilbide luzeko lasterkaria zen, baina nonbait nahastu eta ibilbide motzeko lasterkarien atzetik Xoxokara uste baino lehen iritsi zen. Metroak egin zituen Urnietako aldera, harik eta ikusleek txistu eginez deitu zioten arte. Hari deika zirela erreparatu eta korrika batean atzera egin zuen. Antolatzaileek nahastuta zegoela, eta alperrik zela jarraitzea esan zioten. Lastima! Akats bat egin zuen, lasterketa luzeari zegoen 204. dortsal zuria ezkutuan zerraman eta horregatik ibilbidean zehar zebiltzan antolatzaileek ezin izan zioten akatsaz ohartarazi.



Montse Vazquez bilbotarra bigarren sailkatu zen.



Virginia Perez gasteiztarra hirugarren izan zen.

Maite Maiora

Laugarren edizioan irabazle

“Euskal Herriko txapelketa izanik presio puntu batekin etorri naiz. Lastima, pilatuta zegoen lokatz guztia. Azkeneko iristea desiatzen nengoan, bukatzeko gogoz. Baldintza horietan ezinezkoa da korrika ibiltzea. Ez da antolatzaileen errua, Euskal Herria horrelakoa da eta aguantatu egin behar”.

Montse Vazquez

Laugarren edizioan bigarren

“Lehen ere parte hartu izan dut lasterketa honetan eta pozarren nago. Oso gogoko dut, nire lasterketa kuttuna da. Guztien artean Urnietakoa aukeratuko nuke. Mendia da, egur batean ibili beharra dago. Niri lokatzarekin aritzea ondo etorri zait, nire marka onena egin dut lasterketa honetan. Maioraren atzetik bigarren sailkatzea luxua da”.

Virginia Perez

Laugarren edizioan hirugarren

“Lurrean bukatu dut behin baino gehiagotan. Gogorra egin zait, baina polita da”.

Iaz antzeko egoera bizi izan zuen Andoain bizi den marrokiar jatorriko Abderrahim El Qayed korrikalariak. Azken kilometroetan ibilbidean zehar galdu eta bizpahiru minutu galdu zituen. Aurten, ordea, sailkapen nagusian lau garren postuan iritsi zen denbora polita eginez. Irribarra ahoan, helmuga zeharkatu eta zuzenean Joseba Labak antolatzailearen gara abiatu zen “aurten bai!” oihukatuz. Barrez jardun zuten, poza agertu zuten bitartean. Pozarren agertu zen hedabideen aurrean ere: “piskanaka hoberuntz egin dut eta pozarren nago maila handiko lasterkarien pare ibili naizelako”. Iazko disgustoa ahaztu zaio dagoeneko.

Lasterkariak mendian gora



Julen Larrarte urnietarra.



Josu Arabaolaza andoaindarra.



Mikel Eguren andoaindarra, ibilbide motzean.




Maikel Gomez andoaindarra, Urdapilleta atzean.



Unai Martinez urnietarra.



Xabier Almorza urnietarra.



Olatz Hernandez andoaindarra, ibilbide motzean.



Jon Lopez de Munain andoaindarra.



Iñaki Azpillaga andoaindarra.



Roberto Mateos urnietarra.



Elias Eguren andoaindarra.



Angel Carrasco andoaindarra.



Mikel Agirregomezkorta urnietarra.



Joseba Unanue urnietarra.



Urko Otaño andoaindarra, Harkaitz Lasa atzean.



Uxune Tena eta Xabier de la Revilla andoaindarrak.

Lasterkariak helmugan



Abderramin El Qayed andoaindarra, laugarren.



Uani Ezeiza lehen urnietarra.



Periko Juanikorena urnietarra.



Asier Garitaonandia andoaindarra.



Mikel Costas urnietarra.



Mikel Legarreta urnietarra.



Jon Ugalde andoaindarra.



Iban Estebez urnietarra, ibilbide motzean.



Jaime Real eta Javier Duque andoaindarrak.



Arantxa Ruiz andoaindarra, ibilbide motzean.



Mari Carmen Martin urnietarra, ibilbide motzean.



Deylien Chavez Zanpatuz taldeko kidea.



Sergio Garcia andoaindarra.



Igor Amantegi urnietarra.



Jagoba Aristegi andoaindarra.



Tomax Pellejero urnietarra.

Andoni Urbistondo, 195. dortsala: “H”

Hostia! (Lokatx festa). A ze Hostik! (hamabi edo hamahiru). Hezur-mina (kristona). Herioa (Latza). Hase-rrera (Apala). Hezetasuna (Handia). Hanka pelotak (hazita). Hanturak (ikusezinak). Harresia diruditen maldak (Adarramendi, Zaburu eta Onddo). Hatzamarkadak (osin eta sasi). Hausnartu (Etenetako txakalaldia). Hautsi (kuloteak). Hauspoa (jende askorena). Harrotasuna (neurrikoa). Herria (Urnieta). Herrigintza (urnietarrak). Histiozitoa (zelula gaiztoa). Super H (aupa zuek!)

H hizkia erabili dut aurten Urnietako Mendi Lasterketako 4. ekitaldia laburbiltzeko. Larunbatez UML txikia antolatu zelako San Juan Plazan, Super H elkarteak antolatuta. Haurren minbizia ikertzen laguntzeko asmo xumea duen elkarte. Jendetza. 200 ume eta haur korrika, tailerretan parte hartzen. Itxura bikaina zeukan plazak. H erraldi bat. Eta lokatz arrastorik gabe!

Eta igandean... LOKATZA! Hizki larrietan. Egin beharreko guztia eginda, urte hasieratik, lasterketa bukatzeko erronkari begira. Elikadura zaindu, gin tonic dosia murriztu, astero saio bat errepidean, pare bat mendian... Bukatu! Bestelako helbururik ez! Iaz 7. kilometroan eman nuen amore eta adar jotze franko jasan izan behar nuen. Aurten ibilbide ia osoa egin nuen aurrez. Baikor izateko moduan. Bakarrik egin nuen proba, Gaizka lehengusuaren akuilurik gabe. 24.40 Pozontarriko atakan, ipurtaldea marroi eta Irune, Uxue eta Amaiak mantso nindoala leporatuz. 43.25 Onddi gailurrean, Ainhua Jauregi ibilbide motzeko txapeldunaren erritmo bizia begi bistarekin jarraituz.

Zain nituen Juanjo eta Eñaut Muniskon, aquarius po-



toa eta gel batekin. Eta han azaldu ziren Elena Santervas eta laguna, egur batean. Elena adar jotzen. “Esan nizun txikia korritzeko!” Arleorren gora ez zuen hainbeste hitz egiten... Nerea Albizu eta Amaia Santin, eta bere umeak sumatu nituen, baita Aierdiko jendea ere. Eta errekan gora bakardadea. Patxi Irastorza eta Joxerramon Jauregi animatzen. Horienea bai kasta! Eta Maite Begiristain Adarran gora. Ni atzetik. Gero eta urrunago, baina atzetik.

Gailurretik gertu Urkainberriko bullosoak zeuden. Se-me-a aurrena eta aita gero. Joseba koadrila kidea ere bai. Jana, edaria eta animo hitzak. Adarramendi 1.53. Ondo, entrenamenduetako denbora. Etenetan sagardoa eskaini zidaten Imanol Loco-k, Mandayok eta Josema Mateok. Kabroi hutsak hirurak! Eta gero... amesgaiztoa. Zaburu arteko hiru kilometroak. Bukaezinak. Inor ez. Oinazeak

hanketan, ezina buruan. Baina segi. Libratu tarte hori. Nola edo hala. Zaburun gora ekin, lasai. 2.24. Eta jaitsieran... Alanbre-hesiari heldu, itsatsi eta segi. Infernua.

Onddo. 2.51. Sei minutuko defizita. 1.09 helmugara iristeko. Ander Loiarte eskoba hiru minutura dator. La-saitasuna. Ur depositoan behera zorua espero baino hobeto. Osinetatik joan behar, lokatza sailhesteko. Erreka, Mainguaneko kamionerua eta Joseba Korta, artzaina. Zerbait eskaini dit, ez diot ulertu arkumea edo coca-cola esan duen! Montefriotik Zakarias-Enea bordara. Jaitciera gaiztoa ez, gaiztoa baino gehiago. Ipurdia jarri eta segi. Culo-patin! Eskuak lokatzez beteta. Besabin eskuak garbitu ditut Juelok eta Enekok emandako urarekin. Eske-rrak Torrente eta Andrearen animoei.

Ez naiz lau orduko mugan iritsiko. Atxetilungo bideak hiri handietako hoditeriaren tankera du, mendi bidea baino. Ezin korrika joan, eta oinez. Azken jaitciera. Xoxokako aterpea. 4.10 ikusten dut kronometroan. Miel Tikiyak lagundu dit azken metroak egiten. Jokin Lizeaga, Farrus eta Martiren zorionak. Zisko eginda nago. Super Hko boluntarioak agurtu ditut. Jokin Goikoetxeari autoa zikindu diot. Eta Mizpiradira joan gara. Aupa Zanpatuz mendi taldea! Akabo restriktzioak. “Hostia, attona, lortu dekl!”, esan dit Cipo-k, ziur aski azken urtean gehien xaxatu nauen lagunak.

Esatera ezaguna da gure inguruan. ‘Astea egin diagu’, ‘astia iñ diu’ Urnietako gipuzkera jatorrean. Nik astea, urtea eta bizitza ere bai, igual. Super Hko kideei laguntza emango diet aurrerantzean ere. Berriro Urnietako Mendi Lasterketako parte izango ote naizen...

Marka onenak eta eskualdeko sailkapenak

URNIETAKO IV. MENDI LASTERKETA IBILBIDE LUZEA. SAILKAPENA

1	1:51:59	Aritz	Egea Caceres	Urretxu
2	1:53:48	Hassan	Ait Chaou	Villabona
3	1:55:13	Ismail	Razga	Santurtzi
4	1:55:54	Abderrahim	El Qayed	Andoain
5	1:57:46	Pedro Jose	Hernandez Sanchez	Plasencia
6	1:59:29	Imanol	Larrañaga Larrañaga	Azkoitia
7	2:00:00	Mikel	Albeniz Carlos	Donostia
8	2:00:04	Ander	Barrenetxea Leyaristi	Eibar
9	2:00:09	Erlantz	Diaz Alcarazo	Bilbao
10	2:00:17	Ander	Cangas Morillas	Gasteiz
11	2:00:19	Julen	Martinez de Estibariz	Gasteiz
12	2:00:44	Endika	Gartzia Eizagirre	Lasarte
13	2:01:04	Iñaki	Uribe-Etxebarria	Eskoriatza
14	2:01:56	Iñigo	Alzola Gordoa	Arrasate
15	2:01:59	Iñaki	Martiarena Aiestaran	Irun
16	2:02:12	Julen	Ozaeta Petralanda	Durango
17	2:02:27	Carlos	Garcia Rekondo	Irun
18	2:03:54	Asier	Larruzea Fernandez	Güeñes
19	2:04:29	Axier	Alonso Korkostegi	Oñati
20	2:04:35	Yosu	Goñi Murua	Amezket

ANDOAIN. SAILKAPENA

4	1:55:54	Abderrahim	El Qayed	Andoain
30	2:08:23	Jon	Ugalde Elola	Andoain
115	2:29:12	Javier	Duque Hernandez	Andoain
116	2:29:15	Jaime	Real Blanco	Andoain
120	2:30:02	Sergio	Garcia Caballero	Andoain
128	2:31:24	Aritz	Mujika	Andoain
155	2:37:05	Jagoba	Arostegi Albisu	Andoain
157	2:37:13	Urko	Otaño Basurto	Andoain
169	2:40:05	Arkaitz	Lasa Esnaola	Andoain
182	2:42:32	Iban	Muñoz Gomez	Andoain
185	2:42:46	Antonio	Pacheco Neves	Andoain
198	2:45:04	Elias	Eguren Etxeberria	Andoain

199	2:45:15	Oier	Escudero Mendizabal	Andoain
207	2:47:03	Xabier	De La Revilla Gomez	Andoain
242	2:56:33	Roberto	Cillero Rica	Andoain
245	2:58:04	Maikel	Fernandez Martinez	Andoain
266	3:03:20	Iker	Mujika Tejeria	Andoain
267	3:03:25	Maikel	Gomez Souto	Andoain
288	3:11:12	Iker	Beloki Altuna	Andoain
291	3:12:11	Josu	Arabaolaza	Andoain
299	3:13:40	Emaitz	Albizu Eizagirre	Andoain
301	3:16:21	F.Javier	Parra Cid	Andoain
308	3:20:07	Aitor	Garcia Zalakain	Andoain
310	3:20:18	Iker	Arana Esnal	Andoain
315	3:26:09	Alfredo	Rodriguez Imaz	Andoain
323	3:36:45	Angel	Carrasco Errazkin	Andoain
326	3:38:26	Raul	De Godos Gil	Andoain
328	3:38:27	Iñaki	Azpillaga Isasa	Andoain
334	3:52:34	Jon	Lopez De Munain	Andoain

URNIETA. SAILKAPENA

28	2:05:57	Unai	Ezeiza Jauregi	Urnieta
42	2:11:39	Mikel	Legarreta Astiasaran	Urnieta
48	2:14:14	Xabier	Almorza Almorza	Urnieta
73	2:19:48	Peio	Martin Saiz	Urnieta
78	2:21:30	Mikel	Costas Lopez	Urnieta
106	2:27:09	Igor	Amantegi Altuna	Urnieta
108	2:27:17	Unai	Martinez Alvarez	Urnieta
130	2:31:29	Xabier	Zaldua Zaldua	Urnieta
136	2:32:39	Igor	Ruiz San Ildefonso	Urnieta
162	2:38:59	Tomax	Pellejero Salaberria	Urnieta
166	2:39:34	Alberto	Grinche Valverde	Urnieta
181	2:42:32	Egoitz	Moreno Manterola	Urnieta
190	2:43:37	Imanol	Garcia Arozena	Urnieta
211	2:47:54	Mikel	Agirregomezkorta	Urnieta
223	2:51:30	Ivan	Haro Marcos	Urnieta
240	2:56:30	Periko	Juanikorena Erro	Urnieta
256	3:02:27	Iñaki	Narbarte Garmendia	Urnieta

269	3:04:16	Julen	Larrarte Ugalde	Urnieta
311	3:22:05	Ion	Rodriguez Luena	Urnieta
316	3:27:07	Alex	Rodriguez Monteiro	Urnieta
318	3:27:55	Jon	Iraola Martinez	Urnieta
320	3:30:24	Roberto	Mateos Rodriguez	Urnieta
333	3:49:17	Joseba	Unanue Arruarte	Urnieta
338	4:10:57	Andoni	Urbistondo Aranburu	Urnieta

EMAKUMEZKOAK. SAILKAPENA

51	2:14:55	Maite	Maiores Elizondo	Mendaro
100	2:25:35	Montserrat	Vazquez Rodriguez	Bilbao
110	2:28:14	Virginia	Pérez Mesonero	Gasteiz
113	2:28:39	Andrea	Gil Fernandez	Plasencia
114	2:29:10	Sandra	Sevillano Guerra	Bilbao
122	2:30:48	Alizia	Olazabal Donato	Irun
125	2:31:11	Elena	Calvillo Arteaga	Beasain
129	2:31:27	Nerea	Amilibia Arruti	Aia
138	2:33:06	Zuriñe	Frutos Gutierrez	Artziniega
140	2:33:06	Sheila	Aviles Castaño	S.Margarida
143	2:33:27	Maria	Zorroza Iriondo	Gernika
168	2:39:40	Laura	Carrillo Soto	Bilbao
189	2:43:36	Iratz	Inciarte Agirrezabala	Oiartzun
191	2:43:47	Sonia	Regueiro Rodriguez	Gasteiz
200	2:45:23	Araitx	Irazu Legorburu	Hernani
204	2:45:54	Ainhua	Lendinez Garate	Elgoibar
206	2:47:03	Uxune	Tena Ugarte	Andoain
216	2:49:22	Susana	Vicente Olabarria	Sestao
231	2:54:25	Monica	Tellechea Prieto	Irun
241	2:56:31	Tánit	Pérez de Leceta	Donostia

ANDOAIN. SAILKAPENA

206	2:47:03	Uxune	Tena Ugarte	Andoain
-----	---------	-------	-------------	---------

URNIETA. SAILKAPENA

337	4:02:45	Maite	Begiristain Izeta	Urnieta
-----	---------	-------	-------------------	---------

Laguntzaile askoren lanari esker



Poxontarriko iturrian, Muniskon, Antsoko txabolan..., dozenaka laguntzaile izan zituzten korrikalariek.



Granado eta Labaka antolatzaileak helmugako iritsieran, Udaltzaingoa gertu zegoela.



Lasterketa abiatu eta iritsiera bitarteko tarte horretan parte hartzaileen poltsak prestatzen aritu ziren.



Fruta, edaria, pintxoak, dutxa beroa..., lasterkariek ez zitzaion ezer falta izan.



Gorka Goikoetxea aurtengo esataria herrikide bat gehiago bezala lanean aritu zen Mikel Pagolarekin batera.



Bezperan, Super H taldekoen haur festan, festa aurrera atera zen laguntzaile askoren lanari esker.



Urnietako IV. mendi lasterketa

Argazkiak eta bideoak Internet sarean ikusgai



Lasterketa txikia, ikusgarria



Super Hko kideen photo call delakoan gonbidatu bereziak zeuden: Porrotx pailazoa eta Maddi Busto.



Lasterketa aurretik beroketa ariketak egin zituzten, Maider Calvoren eta Porrotxen aginduetara.



Urnietako mendi lasterketa txikian detalle txiki askorekin edertu zuten. Lan handia egin zuten.



Ibilbide berezian barrena adinka aritu ziren korrika lasterkari txikiak.



Plaza, gutxitan bezala, jendez bete zen martxoren 28an.



Plazan ibilbide berezia egin eta gero, ermitaren atzetik etorrira iristen ziren udaletxe aurreko helmugara.

EMANALDI BIKAINA ESKAINI ZUEN URKIK MARTXOAREN 27AN

Urkiren erakustaldi berria

Urteko hitzordurik garrantzitsuena da Basterokoa, talde guztiak emanaldi berean biltzen dituen eguna da, eta ez zuen hutsik egin. Txalo zaparradaz erantzun zuten aretoa lepo bete zuten ikusleek.

Koreografia landua eskaini zuten: Agurra, Ezpata-dantza, Agintariarena-Txankarrenkoa, Xoxo dantza, Sardiñerak, Uztai-txikia, Makil txikia, Erregelak, Launakoa eta Polka. Kalitate handiko saioa.



Urkiko txikiak. Dantza taldeko harrobia sendo dator.



Sardinerak Begoña Igartua irakaslearekin batera.



Polka dantzatu zuten hamaika-hamabi urteko dantzari txikiak.



Besteak beste, Uztai txikia dantza eskaini zuten dantzariak.



Jokin Otamendi eta Begoña Igartua irakasleekin batera adin ezberdinetako dantzariak.



Saioko argazkiak eta bideoak internet sarean ikus daitezke.

MAÑERU BIZIGUNEA

HURRENGO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA

2 EDO 3 GELAKO
ETXEBIZITZAK
GARAJEAREKINURNIETAN BIZITZEKO
ERA BERRI BAT
KALITATE EZINHOBEA
PREZIO ONENEAN2 EDO 3 GELAKO
ETXEBIZITZAK GARAJEAREKIN
190.000 €-tik hasitaSustatzailea:
inmoioioloEraikitzailea:
ALTUNA Y URRIA S.A.DUPLEXAK
PLANTA BAXUAK
TERRAZA ZORAGARRIEKIN
BISTA EZINHOBEAK
MATERIAL BIKAINAKGARAJE BIKOITZ
ETA BANAKOAK
TRASTELEKUEKINZATOZ ETA
INFORMA ZAITEZ!
606 957 532www.altunayuria.com
www.inmoloiola.com



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Kontxita: Euskaldun hitza

Nire aitaren lehengusua zen Antiguon bizi izan zen Kontxita, nire “bigarren ama”. Antiguoko seminarioan hamabi urte pasa nituen eta seminariora joateko Antiguotik pasatzean Kontxita bisitatzen nuen, Arantzazu kaleko 38. zenbakian. Hilero bi aldiz bisita izateko eskubidea genuen; Seguratik noizbehinka etortzen ziren baina Kontxita hutsik egin gabe pastel-opil bat erosita etortzen zitzaidan beti. Askok estimatzen nion, oinez egiteko bidaiatxo dago behetik goraino. Hori ezinbestean egiteko hamabi urtetan eskertzekoa.

Gainera azkeneko lau urtetan Artzai Onaren elizara dotrina ematera joaten ginen beste lagun bat eta biok, bide luzea da Kontxa inguratuz egiteko. Baina, tartean, kera bat egiten genuen Kontxitaranean eta berak arrautza pare bana jartzen zigun... Orduz geroztik ez dago gosari hoberik munduan hori baino, eternitate guztian eskerrak ematen egoteko bada egiten zigun mesedea. Emakume argia, bizkorra, entenditua.

Bazituen Seguran ilobak, bere anaia-arrebak, bi anai Argentinan. Anai bat etorri zen Argentinatik eta beste anai bati esan zion: “zer egiten ditek hainbeste seme hauek lanik gabe?” Eta lau seme eraman zituen Argentina-ra, zazpi senideetatik lau, gazteenak 15 urte. Hamaika aldiz egon nintzen senide horien amarekin Argentinako notiziak errepasatuz, makina bat

negar egin zuen. Ama bizi zela txandaka etortzen zen seimeren bat bisitan. Kontxitak asko gogoratzen zituen haiek.

Nire etxean ere oso estimatua izan da beti, eta nire ospaketan beti etorri zen.

Nik hamar urte apaiz igaro eta gero, Hernanin nengoela pentsatu nuen ikasketaren bat egitea eta horretarako denboraldi bat hartu nuen, eta Kolonbiara joatea erabaki nuen. Eta joan nintzen Kontxitarengana agurtzera Antiguoko etxe txiki eta maitagarri hartara. Eta ez dit ba esan fabore bat eskatuko zidala: Ameriketara nindoanez gero, ea joango al nintzen bere ilobak bisitatzera, eta hau esan eta negarrez hasi zitzaidan, “auskalo nola dabilztan!” Eta erantzun nion: “nola ez bada, zin dagizut!, euskaldun hitza, joango natzaiera... Horixe baino ez genuen behar!”.

Nik oso gutxi nekien Ameriketako geografiaren berri eta Kontxitak ere oso gutxi; bada hemendik Errusiako ertzeira joan-etorria bi aldiz egin eta oraindik gehiago zegoen joaten bakarrik Kolonbiatik Panpara, Hego Amerikako iparretetik hego aldeko ertzeira. Baina hitza, hitza zen eta Kontxitak hainbeste mesede egin eta nik nola ukatu? Joan nintzenean jabetu nintzen ez zela posible izango, baina nik gogoan nuen hari emandako hitza...

Hurrengo atalean ikusiko dugu zer egin nuen. Gaurko atal hau omen txiki bat bezala bihoa Kontxita zenaren izenean.

Bidaiarien txokoa

Gaztegunean, ikasturte osoan bezala, bidaiariei euren lekukotza agertzeko aukera eskaintzen diete. Datorren asteazkenean Maria Valencia hiz-

lari etorriko da, “Ibili ahala. Gasteiztik Zeelanda Berrira garraiobidez garraibide” izenburu duen hitzaldiarekin. 19:00etan hasiko da.

"Jaxinto, ikastolen lemazain" liburua laster aurkeztuko dute

Hiazinto Fernandorenari buruzko liburua

Hiazinto Fernandoren Setien euskaltzale eragilearen ibilbide oparoa kontatzen duen "Jaxinto, ikastolen lemazain" liburua aurkeztuko da Martin Ugalde parkean, datorren apirilaren 21ean arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Liburua Pello Joxe Aranburuk idatzi du eta berak eta beste lau lagunek (Iñaki Elortza, Koro Etxeberria, Maria Jesus Iartza eta Xabier Lasa) osatutako batzordeak bultzatu du.

Bestalde, duela aste gutxi Seguran aurkeztu duten Fernandorenaren "Ez dira aspaldiko kontuak" antzezlanaren Donostian taularatuko dute, XIII. Giza Eskubideen Zinemandiaren barruan. Emanaldia apirilaren 19an izango da, igandearrekin, arratsaldeko 16:30ean



lazko otsailean Martin Ugalde kultur parkean omendu zuten Hiazinto. Toki berean aurkeztuko dute bere ibilbidearen liburua, datorren apirilaren 21ean.

hasita. Sarrerak dagoeneko salgai daude. Gogoratu, antzezlanak, euskarak frankismoan zehar etxean, kalean, hezkuntzan..., jasandako zapalketa kontatzen duela. Ikas-

tolen sorrera azaltzen du bereziki, eta Hiazinto Fernandoren eginahalak azpimarratzen dira. Goierriko eta bereziki Segurako herritarrak dira antzezleak.

Jarduerak haurrentzat ostegun eta ostiral honetan

Aisialdia Pazko Astean

Aste honetan zehar Urnietako gaztetxoek makina bat ekintza dituzte. Asteartean sormen eta buruhandi tailerrekin hasi dira. Batetik, asteartetik ostegunera goiz eta arratsalde aritu dira mota guztietako jolas eta tailerrak egiten Ludotekan. 5-8 urte bitartekoek kristalezko bolak, misterpotato tailerrak eta mugimendu jolasak egin dituzte. 9-11 bitartekoak, aldiz, ispilu tailerra eta mugimendu jolasak. Bestetik, ostiral arte Lekaion buruhandi tailerrarekin jarraituko dute, goizeko 10:00etatik 12:30era.



Jolasak eta tailerrak egin dituzte Pazko Astean.

Aisialdi jardueri amaiera emateko, ostiral goizerako Ludobusa antolatu dute San Juan

plazan, adin guztietako haurrentzat. Eguraldi txarra eginenez gero, Egapen egingo dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EUSKARAZ IKASTEAK SARIA DAKAR

2014an ibilgailuen gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz gainditu zuten urnietarren artean, Urnietako Udalak sariketa martxan jarri zuen Buruntzaldeko gainerako Udalekin batera. 400 euroko saria zozketa zuen Udalak eta irabazlea Paula Fernandez herriki-dea izan da.

Zorionak!





KIROL ALBISTEAK

Profesional mailan debuta

Urnietako Kirol Elkarteko kideak pozarren daude, taldeko bi kidek ostegun honetan debuta egingo dutelako Galarreta pilotalekuan. Imanol Ansa eta Ander Goikoetxea urnietarrek profesionalen artean jokatu dute, aurreko hiru denboraldiak afizionatuen artean aritu eta gero. Afizionatu mailan hain zuzen Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelketak irabazitakoak dira. Biak ere aurrelariak dira, ezaugarri ezberdinekin.

UKEkoen hitzetan, "Imanol pilotari teknikoa da eta Ander aldiz fisikoki ikusgarria da".




20 eta 21 urterekin debuta egingo dute Galarretan. Zorionak!

Klubak bi gazteak zoriondu ditu eta baita bi gazte horien

prestakuntzan lan egin duten guztiak ere. Zorte on!

Txapeldun-orde berriz ere

Aitor Argiñarena eta Beñat Txapartegi Udaberri txapelketan txapeldun-orde bilakatu dira. Finala galdu zuten Real Sociedad taldearen aurka, 40-26ko emaitzarekin. Ondo hasi ziren, 8-0 markagailuan aurrea hartuta. Baina aurkariak aldea txikitzen asmatu zuten, bereziki, Artetxe aurrelariaren lan bikainari esker. Urnietarrek txapelketa ona egin dute, eta pozik egon daitezke lortutako bigarren postuarekin. Zorionak!



Txapartegi eta Argiñarena txapeldun-ordeak.

Jardunaldi erabakiorra

Eskubaloiko lurraldekako lehen mailan, asteburu honetan jokatu da azken jardunaldia. Urnietarrentzat eta andoaindarrentzat garrantzia handikoa da, azken partida horretan erabakiko baita mailari eutsiko dioten ala ez.

Bi taldeak sailkapenaren atzealdean sartuta daude. Egia taldea da azkena, eta dagoene-

ko maila galduta dauka. Urnietarrek igande honetan Egian jokatu dute eta mailari eusteko euren partida irabazi eta Urolak Leizaran irabazi beharko du. Itxuraz andoaindarrek abantaila dute, partida irabazita nahikoa izango luketelako.

Bi zelaietan erabakiko da, beraz, jaitsiera.

Emailtzak:

Urniet Balerdi 21-26 Aloña Mendi
Leizaran 28-26 Amenabar B

Azken jardunaldia:

Egia-Urniet Balerdi. Igandea, 11:30.
Urola-Leizaran

Sailkapena:

8. Urola	15
9. Leizaran Andoain	14
10. Urniet Balerdi	13
11. Egia	4

Andoaingo txirrindulariak, taldeka onenak izan dira



Azken bi lasterketetan taldekako sailkapenean txapeldun izan dira.

Agurain. Apirilak 5. EH saria

Sailkapena:

1. Eneko Aramendi (QuesosAlbeniz)
2. Mikel Sarasola (Fullgas)
3. Jokin Alberdi (Andoaingo)
17. Ander Amonarriz (Andoaingo)
28. Peio Manterola (Andoaingo)
71. Koldo Velasco (Andoaingo)
83. Adrian Alamo (Andoaingo)
89. Iñaki Gomez (Andoaingo)

Durango. Apirilak 2. EH saria

Sailkapena:

1. Iñigo Elozegi (Autonervion)
2. Jon Gil (Vicinay Cadenas)
3. Jokin Aranburu (Zarauztarra)
5. Jokin Alberdi (Andoaingo)
7. Ander Amonarriz (Andoaingo)
17. Peio Manterola (Andoaingo)
48. Koldo Velasco (Andoaingo)
99. Iñaki Gomez (Andoaingo)
131. Imanol Martinez (Andoaingo)

Euskalduna lider jarri da bost jardunaldiren faltan

Euskalduna taldeak partida erabakiorra irabazi zuen Ubitarten, Orio liderra markagailuan eta sailkapenean gaindituz. Bost partidaren faltan, Ohorezko mailara igotzea gertu dute. Euskaldunakoen arabera, eurena da egutegi aproposena.

Preferente maila, 1. multzoa.

Sailkapena:

1. Euskalduna	58
2. Orioko	58
3. Baskonia	50
4. Urniet	48

Datorren jardunaldia, apirilak 18 eta 19:

Urniet-Munibe
Trintxerpe-Euskalduna
Orioko-Deusto

Asteburuko emaitzak:

Euskalduna 2-0 Orioko
Deusto 1-2 Urniet

Ganbara saskibaloia taldea

Asteburuko emaitzak:

Tolosa 30-27 Ganbara Sen.
Ganbara Kad. 56-52 Hernani
Axular 44-20 Ganbara Inf.

Sailkapena:

1. Andratz B	10
2. Ordizia	9
4. Ganbara	9

Ibili ahala.

Gasteiztik Zeelanda Berrira garraibidez garraibide

Apirilak 15, asteazkena
19.00. Gaztegunea, Idiazabal 13

Hizlaria: **María Valencia**



GazteguneUrniet



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urniet (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urniet.org

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 10ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Selma”. 19:30, 22:00. Apirilak 11, larunbata. 19:30. Apirilak 12, igandea. 19:30, 22:00. Apirilak 13, astelehena.
- Haurrentzat: “Home, hogar dulce hogar”. Apirilak 11 eta 12. 17:00.
- Datorren asteburuan: “Pride”, “Cenicienta”.

Urnietan

- “Los caballeros del Zodiaco”. 16:00, 18:30. Sarobe. Apirilak 12, igandea.
- “Fuerza mayor”. Apirilak 17, ostirala. 22:00. Apirilak 19, igandea. 18:30.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- San kristobal gotorlekua: Iruñean, 36ko Gerran, milaka preso egon ziren bertan. Apirilaren 22tik maiatzaren 9ra, erakusketa gelan. Irekiera ekitaldia: Apirilak 22, asteazkena.

Hitzaldia

Andoain, Bastero

- Stop Deshaucios taldearen eskutik. 19:00. Bastero. Apirilak 14, asteartea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- “Maitasunaren ostean maitasuna”: Ane Gabarain, Sara Cozar, Dorleta Urretabizkaia. 21:30. Auditorioa. 12 euro. Apirilak 17, osterala.

Musika

Andoain

- Frenetik eta Klean musika taldeen disko berrien aurkezpen kontzertuak. 22:30. Gaztetxea. Apirilak 18, larunbata.
- Mikel Urdangarin Castro biolin-errezitaldia. 20:00. Bastero. Apirilak 24, ostirala.

Urnietan, Sarobe

- Tiktara taldea zuzenean. Apirilak 26, igandea. 20:00.

Dantza

Andoain, Bastero

- “Bost, Urban dance show”, Errusiako eta Euskadiko dantzarien ikuskizuna. 21:30. Auditorioa. 10 euro. Apirilak 24, ostirala.

Mendeurrena

Andoain

- “Andoaindarrak 400”, ekitaldi sorta apirilean. Ikus, 2. orrialdea.

Deialdiak

Andoain

- Berdintasun plana zehazteko bilera irekia. 18:30. Anbrosia Olabide. Apirilak 16, osteguna.
- 36ko Gerran fusilatutakoei eta errepresioa jasandakoei omenaldi ekitaldia, “Oroitu Andoainen” elkartearen eskutik. 12:00. Alfaro parkea. Apirilak 18, larunbata.

Aisialdia

Urnietan

- Pazko Asteko jarduerak: **Buruhandi tailerra** 10:00-12:30, Lekaio. **Ludobus** 11:00-13:00, S. Juan plaza. Apirilak 10, ostirala.

Andoain

- Gazte Lokalaren eskutik: **Wii, PSP saioa** Apirilak 10, ostirala. **Paintball saioa** Apirilak 11, larunbata.


Jaiak

Andoain

- **Koadrilen eguna** Andoainen, txartelak erosteko epea zabalik: Txindoki, Xaxi, Irunberri, Txitibar. Azken eguna: Apirilak 19.
- **Santakrutzak 2015:** Apirilak 30-maiatzak 3.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Zorionak sorgintxo! Zorionak polittal Zorionak Inunzte! Dagoneko 7 urteko. Ondo pasa maitia, milaka muxu. Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Klara Larrañaga Letamendiak 7 urte beteko ditu apirilaren 11n. Zorionak eta muxu potoloak, aiton-amonak.

ANDOAIN

ZORIONAK



3 urte egin berri ditu **Eneko** Fernandez gure piratak! Zorionak potxolo! Muxu handi bat, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Joan zen apirilaren 8an **Aimar** Arriagak 7 urte bete zituen. Zorionak eta muxu potoloak etxekoan partetik.

ANDOAIN

MERKATU TXIKIA

- Pertsona bat behar da ume bat goizetan eskolara eramateko,

Andoainen. Interesatuak 13:00etik aurrera deitu: 647 93 62 02.

Koadrilen egunerako txartelak salgai daude

Apirilaren 19an amaituko da koadrilen eguneko txartelak erosteko epea. Txartelak 6 euroren truke salgai daude Txindokin, Xaxin, Irunberri eta Txitibarren.

Andoainen koadrilen eguna apirilaren 25ean izango da, Santakrutzen ospakizunen aurreko asteburuan. Jaiak, bestalde, apirilaren 30etik maiatzaren 3ra dira.

111 akademia saria erabakitze azken txanpa

Larramendi Bazkunak euskal literaturzaletasuna sustatzeko martxan jarri zuen aspaldi 111 akademia. Akademiakideek iazko euskarazko libururik onena saritu ohi dute eta lan horretan buru-belarri dabilta. Lehen aukeraketa eta gero, bi euskal lan iritsi dira finalera: Iban Zalduaren “Inon ez, inoiz” eta Mikel Peruarenaren “Su zelaia”.

SARI BANAKETA EKITALDIA ANDOAINEN

Akademiakideek apirilaren 12ra arteko epea izango dute bi horietako baten alde egiteko. Apirilaren erdialde-za egutuko da irabazlearen izena. Okerrik ezean, saria egututza emateko ekitaldia maiatzaren 7an ospatuko da, ostegunarekin, Andoingo Bastero Kulturunean.

Gipuzkoako Partaidetzako Aurrekontuak

2 MILIOI euro
BURUNTZALDEA hobetzeko

Egin zure proposamena www.aurrekontuahobetzen.eus webgunean eta parte hartu zure herriko tailerrean:

- **ANDOAIN.** Apirilak 15, asteazkena, 19:00etan, **BASTERO KULTURGUNEA**, ekitaldi aretoa

Antolatzailea

Zuk erabakitzen duzu!

